Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Aurretiazko genero eraginaren txostena

# Informe de evaluación previa de impacto de genero

**Foru dekretu proiektua, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen funts europarrak hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzeko**

**Proyecto de decreto foral para regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR)**

## 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

## 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo cumplir con el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Arau aldaketak

Proiektu honen xedea da gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

Asmoa da funts horien kudeaketan iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.

## 2. Modificaciones normativas

Es objeto del presente proyecto regular el marco general de la estructura de gobernanza, para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

Se pretende reforzar los mecanismos para la prevención, detección y corrección del fraude, la corrupción y los conflictos de interés en la gestión de dichos fondos.

Proiektuak kudeatzen dituzten departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen eginkizunak, konpromisoak eta betebeharrak ezartzen dira.

Se establecen las funciones, compromisos y obligaciones que tendrán los departamentos y demás entidades del sector público foral que gestionen los proyectos.

Era berean, besteak beste, honako alderdi hauek ezartzen dira:

- Gobernantzako Departamentua arduratuko da giza baliabideen kudeaketari, kontratazioari, prestakuntzari, zuzentasun sistemari eta bere eskumeneko beste gai batzuei buruzko gaiez.

- Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu BEM funtsen kontu-hartze, fiskalizazio, kontrol eta auditoretzako eginkizunak eta eskumenak.

- Ogasun eta Finantza departamentuko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia arduratuko da: BEM funtsetatik datozen finantzaketa aukerak identifikatzeaz eta zabaltzeaz, finantzaketa eskaerak aurkezten laguntzeaz, planteatzen diren kontsultei erantzuteaz, BEM funtsei buruzko informazioa hedatzeaz, finantzatutako

Asimismo, se establece, entre otros aspectos, que:

- El Departamento de Gobernanza será el encargado de las materias relativas a la gestión de recursos humanos, contratación, formación, sistema de integridad y otras materias de su competencia.

- La Dirección de Finanzas y Presupuestos del Departamento de Hacienda y Finanzas tendrá a su cargo el ejercicio de las funciones y competencias de intervención, fiscalización, control y auditoría de los fondos MRR.

- La Dirección General de Política fiscal y Financiera del Departamento de Hacienda y Finanzas será la encargada de la identificación y difusión de oportunidades de financiación procedentes de los fondos MRR, apoyará la presentación de solicitudes de financiación, atenderá las consultas que

proiektuen egoeraren berri emateaz Batzar Nagusiei...

se planteen, difundirá información relativa a los fondos MRR, dará cuenta a las Juntas Generales del estado de los proyectos financiados...

Azkenik, lan batzorde tekniko bat eratzen da, departamentuen eta foru sektore publikoko gainerako entitateen jarduerak laguntzeko eta koordinatzeko organo gisa, BEMaren jarraipena egite aldera.

Finalmente, se constituye una comisión técnica de trabajo como órgano de apoyo y coordinación de las actuaciones de los distintos departamentos y entes del sector público foral para el seguimiento del MRR.

Ezartzen da, aipatutako lan batzorde teknikoa osatzean, bermatu egingo dela emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua, 2/2015 Foru Arauak, 2015eko martxoaren 9koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Se establece que la constitución de la citada comisión técnica de trabajo garantizará la presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con lo establecido en el artículo 21.2 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## 3. Genero eragina

### 3.1 Genero egokitasuna

Proiektu honen xedea da gobernantza egituraren esparru orokorra arautzea, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik (BEM) datozen Europako funtsak hobeto inplementatzeko.

## 3. Impacto de género

### 3.1. Pertinencia de género

El objeto de este proyecto es regular el marco general de la estructura de gobernanza para una mejor implementación de los fondos europeos provenientes del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR).

Funts horiei lotutako proiektuak gauzatzeak, azkenik, Gipuzkoako emakume eta gizonei mesede egingo die. Beraz, horiek hobeto kudeatzeko eta ezartzeko gobernantza egitura arina izateak herritarrei eragiten die, eta eragina du emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko eta/edo kontrolatzeko orduan, eta genero rolak haustea eragin dezake. Horregatik guztiagatik, proiektu hau genero ikuspegitik aztertzea egokia dela erabaki da.

La ejecución de los proyectos vinculados a esos fondos beneficiará, en último término, a las mujeres y hombres de Gipuzkoa. Por tanto, contar con una estructura de gobernanza ágil para la mejor gestión e implementación de los mismos, afecta a la ciudadanía, e influye en el acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres, y puede incidir en la ruptura de roles de género. Por todo ello, se determina que el presente proyecto es pertinente al análisis de género.

## 3.2. Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.1 Araugintza mandatuak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen jardunean genero ikuspegia txertatzeko deskribatzen dituen neurrien artean, 21. artikuluan zehazten du ordezkaritza orekatutzat hartuko dela “emakumeen eta gizonen presentzia bermatzen duen egoera, dagokion multzoan, sexu bakoitzeko pertsonek ehuneko hirurogei

## 3.2 Valoración del impacto de género

### 3.2.1 Mandatos normativos

La Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, entre las medidas que describe para integrar la perspectiva de género en la actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las entidades integrantes del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, especifica en su artículo 21 que se entenderá por representación equilibrada: “aquella situación que garantice la presencia de mujeres y hombres de forma que, en el

gainditu gabe eta ehuneko berrogei baino gutxiago izan gabe".

conjunto a que se refiera, las personas de cada sexo ni superen el sesenta por ciento ni sean menos del cuarenta por ciento".

Artikulu berak, 3. apartatuan dioenez, salbuespen gisa ez dira bete beharko garatutako irizpideak, beti Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aldeko txostenarekin, baldin eta ezarritako inguruabar batzuk gertatzen badira: "organoko kideak karguaren arabera izendatzen badira eta/edo izendapen hori instituzio edo erakunde batek baino gehiagok egiten badute. Kasu horretan, ordezkaritza orekatuaren irizpideari eutsi beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako pertsona taldeari dagokionez, aurreko apartatuetan jasotako kasuren bat aplikatzekoa denean izan ezik".

Continúa el mismo precepto, en su apartado 3, señalando que los criterios desarrollados no habrán de cumplirse excepcionalmente, siempre con el informe favorable del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres, cuando se den una serie de circunstancias estipuladas: "cuando se trate de órganos en los que la designación de sus integrantes se haga en función del cargo y/o cuando esta designación sea realizada por varias instituciones u organizaciones. En este caso, el criterio de representación equilibrada se deberá mantener por lo que respecta al grupo de personas designadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa, salvo que sea de aplicación alguno de los supuestos contemplados en los apartados anteriores".

Jarduketetan genero ikuspegia txertatzeari dagokionez, 2/2015 Foru Arauaren 19.2 artikuluak ezartzen du departamentu guztiek eta haiei atxikitako foru organismo autonomo, enpresa entitate publiko eta merkataritza sozietate, zuzendaritza eta zerbitzu guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko dutela. Horretarako, bakoitzak bere jarduera esparruan, neurri zehatzak

En relación con la incorporación de la perspectiva de género en las actuaciones, el artículo 19.2 de la Norma Foral 2/2015 establece que todos los departamentos, los organismos autónomos, entidades públicas empresariales y de las sociedades mercantiles forales adscritas a los mismos, direcciones y servicios de la Diputación Foral de Gipuzkoa promoverán la igualdad de

programatu eta ezarriko ditu, neurri horien jarraipena egingo du, eta norberaren alorreko politiketan generoaren ikuspegia integratuko dute.

mujeres y hombres, para lo que programarán, implementarán y darán seguimiento a las medidas concretas en su ámbito de actuación y, en general, integrarán la perspectiva de género en sus correspondientes políticas sectoriales.

Ildo beretik, 19.4 artikuluak honako hau ezartzen du: Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu guztiek eta haiei atxikitako foru organismo autonomo, enpresa entitate publiko eta merkataritza sozietate guztiek hurrengo kapituluetan zehaztuta ageri diren neurri orokorrak hartuko dituzte, lan arlo guztietako prozedura erkideekin loturik daudenez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten entitate guztiek beren jardunean genero ikuspegia integratu dezaten.

En el mismo sentido, el artículo 19.4 establece que los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, los organismos autónomos, entidades públicas empresariales y de las sociedades mercantiles forales adscritas a los mismos, desarrollarán las medidas de carácter general, recogidas en los siguientes capítulos, para la integración de la perspectiva de género en la actuación de todas las entidades integrantes del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa y que se relacionan con procedimientos comunes a todas las áreas de trabajo sectoriales.

**3.2.2 Hartutako neurriak**

Proiektu honen 7. artikuluaren arabera, lan batzorde teknikoa osatzean, bermatu egingo da emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua dela 2/2015 Foru Arauak, 2015eko martxoaren 9koak, Emakumeen eta Gizonen

**3.2.2 Medidas adoptadas**

Según el artículo 7 de este proyecto, en la constitución de la comisión técnica de trabajo se garantizará la presencia equilibrada de mujeres y hombres, de conformidad con lo establecido en el artículo

Berdintasunerakoak, 21.2 artikuluan eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bateginaren 3.10 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

21.2 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el artículo 3.10 del Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado mediante el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

Proiektu honen 7. artikuluaren arabera, lan batzorde teknikoa Ogasun eta Finantza Departamentua eta Gobernantzako Departamentua ordezkatzen dituzten teknikariek osatuko dute. Era berean, zehazten da, Laneko Batzorde Teknikoaren gonbidapenaren bidez, beste departamentu batzuetako ordezkariek parte hartu ahal izango dute, besteak beste Berdintasuna Organoak genero ikuspegia txertatzeko, baita egokitzat jotzen diren kanpoko pertsonek ere.

Según el artículo 7 de este proyecto, la comisión técnica de trabajo estará formada por personal técnico representante del Departamento de Hacienda y Finanzas y del Departamento de Gobernanza. A su vez, se señala que, mediante invitación de la Comisión Técnica de Trabajo, podrán participar representantes de otros departamentos, entre ellos el Órgano de Igualdad, para incorporar la perspectiva de género, así como las personas ajenas que se consideren oportunas.

### 3.2.2 Genero eragina

Proiektu horren 7. artikuluak xedatzen du lan batzorde teknikoa eratzean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan behar dela. Era berean, Berdintasun Organoak parte hartzeko aukera ezartzen da, genero ikuspegia txertatzeko.

### 3.2.3 Impacto de género

El artículo 7 de este proyecto dispone el deber de tener una presencia equilibrada de mujeres y hombres en la constitución de la comisión técnica trabajo. Asimismo, se establece la posibilidad de participación del Órgano de Igualdad, para la incorporación de

la perspectiva de género.

Beraz, proiektu honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eragin positiboa izango duela ondorioztа daiteke.

Por lo tanto, se puede concluir que este proyecto tendrá un impacto positivo en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto.

Donostia, 2023ko irailaren 27a

San Sebastián, a 27 de septiembre de 2023

**Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**